...eta kitto!
947 zkia.
2015-X-23

# 175 urteko historia




EUKI
zerbitzu inmobiliarioak
Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

ZERBITZUA GESTIOA ADMINISTRAZIOA

30 urteko esperientziak ematen duen konfiantza

www.euki.com Tel: 943 200 358



Policlínica Gipuzkoako Kontsulta Zentroa
Ibarkurutze kalea, 2 -EIBAR-
Telefonoa: 943 25 61 00

# POLICLINICA GIPUZKOA

## Prostatako minbiziaren tratamendua eta diagnosia

Telefonoa: 943 00 28 00
www.policlinicagipuzkoa.com


Garmendia eta Rodriguez doktoreak.

# Ohiko kirurgiatik Da Vinci robotikara

**Urriaren 28an, eguaztena, Gregorio Garmendia eta Josean Rodriguez urologoek prostatako minbiziaren inguruan gaur egun dauden aurrerapenei buruz jardungo dute Portalean, 19:30etik aurrera.** Hitzaldian gaitz horren tratamenduan Da Vinci kirurgia robotikoarekin izandako aurrerapenak azalduko dituzte, kirurgia mota horretan duten esperientziatik abiatuta.

Gregorio Garmendia eta Josean Rodriguez Gipuzkoa Poliklinikako urologoek diotenez, *"hitzaldiaren helburua prostatako minbiziaren inguruan gaur egun dugun ezagutzaren berri ematea da, batik bat diagnosia eta tratamenduari dagokienez. Horrez gainera, txizari ezin eustean eta zutitzearen disfuntzioan lortu ditugun emaitzak ere azalduko ditugu".*

Hitzaldia eta gero, entzuleek galderak egiteko aukera izango dute. Prostatako tumoreetako askok ez dute sintomatologiarik erakusten diagnosia egiterakoan, eta beste kasu askotan, tumore horiek ez dira beste patologia batzuetatik bereizten, hipertrofia prostatiko onberatik adibidez. Horregatik, gerta daiteke tumorea ez antzematea edo diagnosia atzeratzea, eta horrek baldintzatu egingo du estrategia terapeutikoa eta pazientearen pronostikoa.

Alarma-seinaleei dagokienez, Garmendia eta Rodriguez urologoek nabarmentzen dute, *"txiza egiterakoan mina sentitzen bada urologora joan behar da azterketa egiteko; kasurik gehienetan tumorerik agertu ez arren, pazienteari tratamendu egokia emango zaio sintomatologia desagerrarazi eta bizi-kalitatea hobetzeko. Horrez gainera, garrantzitsua da sintomarik ez baina arrisku-faktorea duten pazienteak (prostatako minbizia izan duten lehen mailako senideak edukitzea) aldizka urologora joatea".*

*"Gaur egun prostatako tumoreei aurre egiteko gehien erabiltzen diren tratamenduak kirurgikoa, prostatektomia erradikala eta erradioterapia dira, beren modalitate ezberdinetan"*, dio Rodriguez doktoreak.

**DaVinci kirurgia robotikoa**

Prostatako minbizia, goiz antzematen denean, kirurgia bidez kentzen da. Orain arte, kirurgia mota hori, modu irekian zein laparoskopia bidez egin izan da. *"Hala ere* -dio Da Vinci sistemarekin 200 pazientetik gora operatu dituen Gregorio Garmendiak-, *Da Vinci robotak abantaila handiak eskaintzen dizkio prostatako kirurgiari hainbat gai garrantzitsutan, hala nola, zutitze-funtzioaren zaintzan eta txizari ezin eustearen portzentajearen murrizketan; horiek dira gure pazienteen bi kezka nagusienak". "Gainera* -nabarmendu du-, *teknika honek ospitaleko egonaldiak, odol-transfusioa egiteko premia eta bizimodu normalera itzultzeko denbora murriztu egiten ditu".*

## HITZALDIA:

**"Punta-puntako aurrerapenak PROSTATA MINBIZIAN. Da Vinci robotika"**

OSASUN IKASGELAK
POLICLINICA GIPUZKOA

POLICLINICA GIPUZKOA
kutxa
EL DIARIO VASCO




DATA
Urriaren 28an

ORDUA
19.30 h

TOPALEKUA
Eibarko Portalea
Udal Kultur Etxea

sarrera
DOAN

POLICLINICA GIPUZKOA
www.policlinicagipuzkoa.com

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**KOPLA.-** Txantxa, berriketa, kontu. *"Juan zaittez koplekin beste alde batera".*
**KOPLA BARIK IBILLI/JARDUN.-** Aitzakiatan, zeharka, edo bueltak emanez ibili gabe, gauza bat egin. *"Hainbeste kopla barik, nere denboran, hamaika zaldi jaso izan jittuat".*
**KOPLETAN IBILLI.-** Txantxetan ibili, benetan hartu gabe. *"Benetan hartizu esaten detsurana, ez nabil ba kopletan".*

# eskutitzak

### EUSKARAZKOA GAZTELERAZ EMATEKOTAN, ABISATU GUTXIENEZ

Kexa honen bitartez asteburuan zineman gertatu zitzaidana salatu nahi dut.

Dakizuenez, asteburuan Eibarren lehenengoz **Amama** euskarazko pelikula eman zuten. Gure harridurarako, baina, Eibarren ematen ziren hiru emanaldietatik bakarra ei zen bertsio originalean eta gaztelerazko azpitituluez (VOSE).

Pelikularen jatorrizko hizkuntza **euskara** izaki, Eibarren emanaldi gehienak euskaraz izan beharko luketela deritzot. Hala eta guztiz ere, horrela izan ezik txarteldegian gutxienez ikusiko dugunaren hizkuntza zein izango den esan beharko ligukeela iruditzen zait.

Gutxitan joaten naiz zinemara, baina oraingo honetan euskaraz eginikoa eta bertakoa zelako joan nintzen apropos; iraingarria egin zitzaidan, halaber, bertaratu eta inork aurrez abisatu gabe pelikula gaztelera hutsez (bikoiztua) ikustea.

Hurrengoan hau kontuan hartuko delakoan.

**HAIZEA**

### TRAFIKO ALDAKETAK HERRI-LASTERKETAREKIN

III. Asier Cuevas Herri-lasterketa dela-eta, arratsaldeko 18.00etatik 18.40ra bitartean trafiko gorabeherak izan daitezke Eibarko erdigunean.

Lasterketa Toribio Etxebarriatik hasi, Egogain kaletik igo eta Karmen, Barrena eta Barakaldo lotzen diren bidegurutzeraino doa. Beraz, 18.00etatik 18.45era bitartean Eibar erdira datorrenari Jardinetako sarreratik edo Sallabenteko biribilgunetik sartzea gomendatzen diogu. Eta, irteteko, Sallabenteko biribilgunetik, edo auzoetatik, Eibar erdia sahiestuz. Arazoak ulertuko dituzuelakoan.

**KLUB DEPORTIBOKO ATLETISMO TALDEA**



## ORDU ALDAKETA

**ASTEBURUKO zapatutik domekarako (urriak 25) goizaldeko 03.00ak heltzean, erloju guztiak ordubete atzeratu egin beharko ditugu, 02.00etara.** Beraz, ofizialki **ordubete gehiago izango du asteburu horretako domekak.** Neguko ordutegi honek martxoaren 27ra arte iraungo du; egun horretan udakoa jarriko da berriro indarrean.

## ASTEAN ESANAK

"Hazkunde etengabearen sistemaren talka biolentoa ikusten ari gara. Garapen iraunkorraren izenean egiten diren politikak ez dira nahikoa, eta ekonomiaren eskala jaistea baino ez da geratzen. Fisikaren kontra goaz zuzen-zuzenean. Maila batetik aurrera frogatuta dago hazkundeak ongizatea sortzeari uzten diola. Primitiboa da barne produktu gordina ekonomiaren osasuna neurtzeko erabiltzen jarraitzea"

(JOSEBA AZKARRAGA, SOZIOLOGIA DOKTOREA EHU-N)

"Bainugelan dagoen ilea ikusteko gai gara gu; argazki-kamera bat ez. Edozein sistematan dagoen zarata ez dago begian. Oso ondo fokatu arren, irudia lausotuta dago beti. Baina burmuinak inperfekzio hori erabiltzen du begiaren gaitasun hori lortzeko: informazioa puntu bakar batean beharrean, puntu askotan dago, eta hori guztia jasotzeko prestatuta dago begia. Horri esker ikusten dugu horren ondo!"

(OIER DOMINGUEZ, CUM LAUDE DOKTORETZA TESIAN)

"Uste anitz daude diasporaz, baina anitz mitifikatu da emigrazioa. Lotura kulturan oinarritu da beti, baina inork ez du oraindik interesik hartu negozioan ongi egin dutenekin. Mundua ez da dantzatik eta kantutik bizitzen, eta kulturak errealitatea ezagutu beharko luke. Errealitatea da eguneroko ogia egitea. Kultura gauza ederra da, beharrezkoa. Baina eguneroko ogiari ere eman behar zaio balioa"

(MARTIN GOIKOETXEA, KALIFORNIAN BIZI DEN EUSKALDUNA)

...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.eus / komunikabideak@etakitto.eus / publizitatea@etakitto.eus **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.
**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIAK:** Castrillo-Ortuoste Fondoa
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** ***8.050 ale.*** **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak* DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

# Antonio Cancelo, Gure Balioak 2015 Sarixa



Cancelo Eroskiren sortzailliak jasoko dau Debegesak sortutako Gure Balioak sarixa seigarren edizIñuan.

**Aurtengo Gure Balioak Sarixa Antonio Cancelo enpresarixuak jasoko dau.** Debegesaren ekimenez seigarren urtez emongo daben sarixa Eroskiren sortzaillia eta MCC Taldeko presidente ohia dan Cancelori emotia erabagi daben epaimahaixak *"erantzukizun sozial eta balorien kulturan oiñarrittutako"* ibilbidia eta enpresa-jardueria azpimarratu dittu, bestiak beste. Kanpuan jaixo arren "adopziñoz" eibartarra dan Cancelok euskal enpresa haundixenetakua dan Eroskiren sorreran parte hartu eban 1969xan eta 1990. urtera arte bertako zuzendarixa izan zan. Urte berian Eroski Taldeko presidente izendatu eben. 1992xan Mondragon Taldeko Banaketa eta Elikadura Dibisiñoko presidenteorde izan zan eta 1995ian MCC Taldeko Kontseilu Orokorreko presidente izendatu eben. Sari-banaketia azaruaren 12xan egingo da, Eibarko Coliseo antzokixan. Sarixa, Juan Luis Baroja Collet artistaren brontzezko eskulturia, iaz Gure Balioak Sarixa jaso eban Sabin Osorok emongo detsa eta ekitaldixan Garbiñe Biurrun epailliak giza-balorien inguruko hitzaldixa emongo dabela aurreratu dabe.



21 sukaldarik eta zortzi soziedadek jardun eben biharrian jaixan, 60 boluntarixorekin batera. LEIRE ITURBE

# Alkartasun eskukadak Egoaiziaren jaixan

**Aurreko asteburuan Untzagan egin zan "Jana ez da txantxa" bazkarixak eibartarren eskuzabaltasuna agerixan laga eban** barriro be: iazkuaren bidetik aurten be bazkarirako eguazen 400 tokixak bete egin ziran eta, hórreri esker, Peruko APPROCAP nekazarixen alkartiarendako 4.000 euro baiño gehixago batu zittuen antolatzailliak, Alboan, Aldatzen eta Egoaizia Gobernuz Kanpoko Erakundiak: *"60 boluntarixo baiño gehixagok, 21 sukaldarik, 8 soziedadek, Mireia Alonso sukaldari eibartarrak egindako biharrak eta horretan ipiñitako goguak, Narbaiza eta Meabebasterretxea bertsolarixak, Aitor Elizegi sukaldarixak, erakunde publiko zein pribatuen babesak… danak alkarrekin eguna giro paregabian pasatzia eta dana primeran urtetzia posible egin eben, horregaittik eskerrik asko daneri!"*.



Orbea kiroldegixaren sarreran dago makiña barrixa.

# Poltsa konpostagarrixen makiñia Urkizun

**Debabarreneko Mankomunidadiak poltsa konpostagarrixak banatzeko makiñia ipini dau Urkizun,** Orbea kiroldegixan. Holako bigarren makiñia da herrixan, martxuaz geroztik Untzagan, Arkupe tabernaren aldamenian beste bat martxan dago eta. Horren harira egindako adierazpenetan, Arcadio Benitez Mankomunidadeko presidentiak hondakin organikuetarako poltsa konpostagarrixak erabiltziak dakan garrantzixa azpimarratu eban: *"Zabor-poltsa ez konpostagarrixak, normalak erabilliz gero materia organikua kutsatu egitten da eta hondakiñak bereizteko hartutako biharrak ez dau ezertarako balixo"*. Makiñak ordutegi baten barruan erabilli leikez bakarrik: Orbea kiroldegikua 07:30etik 21:30era astebarruan eta 09:00etatik 14:00xetara asteburu eta jaiegunetan; eta Untzagakua 06:30etik 20:30era astegunetan eta 06:30etik 14:00xetara asteburu eta jaiegunetan. Bestela, makiñak erabiltzia oso erreza da: edukiontzi marroirako erabiltzen dan txartela makiñaren irakurgaillura gerturatu eta zuzenian 22 poltsa (ondo bilduta) urtetzen dira. Makiñetan ezeze poltsak Pegoran be jaso leikez. Zalantzak argitzeko 943 700 799 telefonora deittu leike.

# Bihargin fiñen adibide bizixak

**Armerixa Eskoliaren "Ondo egindako lana" hitzaldi-programako saio barrixa** hartu eban eskolako ekitaldi aretuak astelehenian. Letizia Gomez kazetarixak zuzendutako solasaldixan Jagoba Arrasate, Numancia foball taldeko entrenadoriak eta Su Ta Gar taldeko Aitor Gorosabelek euren biharraren gaiñian jardun eben berbetan eta, bakotxak esparru diferentian jarduten badau be, bixak bat etorri ziran "jendiaren txaluak jasotzeko gogotik jardun biharra daguala" esaterakuan.




*Jose Mari Ulazia, Letizia Gomez, Aitor Gorosabel eta Jagoba Arrasate.*



# Emoziñuen monoluguak

**Ekingune alkartiak "Emoziñuen monologuak" izenekua antolatu dau eguaztenerako,** ekintzailliak euki leikiazen beldurrak uxatzeko tresnak eta moduak eskintzeko asmuarekin. Azaldu dabenez, *"horretarako bakotxak bere beldurraren inguruko esaldi, txiste edo istorioren bat sortu biharko dau eta, jarraixan, saiuan parte hartzen dabeneri azaltzen lagunduko detsagu. Asmua negozio bat kudeatzeko orduan sortzen diran beldurrak aztertzia, testua umorez idatzi eta kontatzia eta gure beldur gehixenak irrazionalak direla ikusteko exageraziñua eta txistiak erabiltzia da. Amaitzian ideiak hartu eta emoteko, ikasteko eta networking-erako gune bat sortuko dogu".* Saiua Arrate Kultur Elkartean egingo da, 10:00etatik 22:00etara eta izena emoteko ekingune@ekingune.com helbidera idatzi leike, gaian MONOLOGOAK_izena eta abizena idatzita edo, bestela, 653709150 / 943208420 telefono zenbakira deittu.




# autuan

## ELA JAIKO ZOZKETIA

Urratsez Urrats ELA-rekin jaixan jokalari guztiak siñatutako Eibar foball taldiaren kamisetia zozketatu eben zapatu gabian eta sarixa 6.482 zenbakixa dakanarendako izango da (ordezkuak 2.868 eta 1.849 dira).

## 1950 ETA 1944-AN JAIXOTAKUAK

Azaruaren 14an alkartuko dira 1950 urtian jaixotakuak: 13:00etan Untzagan argazkixa egin eta 14:00etan Arratera, Kantabria jatetxian egingo dan bazkarira juateko autobusa hartuko dabe. Izena emoteko 70 euro sartu bihar dira Santander bankuko 0049 0706 32 2691022849 kontuan (azaruaren 7xa baiño lehen). Eta 1944an jaixotakuak azaruaren 7xan egingo dabe bazkarixa Unzaga Plaza hotelian. Juan nahi dabenak Laboral Kutxako 3035 0078 81 0781052201 kontuan 60 euro sartu biharko dittu.

## AIXOLARA MARTXA

Marcan Huella alkartiak antolatuta, domekan Aixolako urtegira II. Alkartasun Martxa egingo da 10:30etik aurrera. Sarreriak 5 euro balixo dau eta trukian pintxua eta edarixa emongo dabe. Gaur berandura arte egongo da erosteko aukeria, Eibarren Laubide tabernan (Amañan) eta Jardiñetako supermerkatuan, baitta 688696415 telefonora Whatssappa bialduta.

## EMAKUMEEN AZTARNAK

Eguaztenian 11:30ean "Emakumeen aztarnak, Eibarko industrializazio-prozesuan" egitasmoko 9. saiua egingo da, betiko moduan Untzagako jubilauen etxian.



## ROSARIO ARRIOLA GARATE (2015-X-11)

*"Zure oroitzapenak bizirik dirau"*

ZURE SEME-ALABAK, ILOBAK ETA BILOBAK

Familiaren izenean, eskerrik beroena
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.



## asteko 80 datua

bat postu izango dittu San Andres azokiak. Txaltxa Zelaixan ipiñiko da karpa haundixena (50 metro luze eta 15 metro zabal). Sarixetan 2.000 euro banatuko dittue: sail bakotxeko lehenak 180 euro jasoko dittu eta bigarrenak 120 euro, bestiak beste. Izen-emotia azaruaren 6xan itxiko da.

# Herrien Alternatibarekin bat egitteko deixa




*Untzagako agerraldixan bixar Bilboko ekitaldixan parte hartzera animatu eben.*

**Eibarko Karta Sozialak astelehenian agerraldixa egin eban Untzagan, bixar Bilbon egingo dan** Alternatiben Herria dalakuan jendia parte hartzera animatzeko: *"Sistema kapitalistak alternatibarik ez dakala etenbarik errepikatzen badeskue be, mundu osoan egunero pertsoniari begiratzen detsen proiektu eta alternatiba diferentiak aurrera eruaten ari dira, baitta Euskal Herrixan be, eta bixar Bilbon horrelakuak ezagutzeko eta gogoeta egitteko aukeria eukiko dogu".*

Aste honetan presentau daben programiaren arabera, Alternatiben Herriak bost auzo ("Arragoa", "Gure Gaia", "AuzoEKOnomia", "Demokrazia, Parte Hartzea eta Burujabetza" eta "Bizitza Duinak eta Anitzak") eukiko dittu eta Bilboko Areatza eta Alde Zaharraren inguruan egingo da. Formatu ezberdiñeko ekintzak egongo dira: doku-zine-forumak, hitzaldi eta mahai-inguruak, esperientzien kontakizun komunak, taillarrak, azokak, performanceak, musikia, animaziñua... Informaziño gehixagorako interneten alternatibenherria.eus helbidian begiratu.

# 55 urtiak alkarrekin ospatzen

**1960xan jaixotakuak edarto pasau eben aurreko zapatuan,** aurten 55 urte bete edo beteko dittuela ospatzeko antolatutako jaixan. Untzagan gordetzeko moduko erretratua etara eta jarraixan, tabernarik taberna ibilli ziran, danak alkarrekin bazkaltzera juateko ordua aillegau arte.



*1960xan jaixotakuak talde politta osatu eben zapatuan 55 urtiak ospatzeko.*




# Debegesatik Uni-ra bisitan

**Debegesa garapen agentziakuak Uni Eibar-Ermua BHI-an egon ziran** oin dala egun batzuk, ekintzailetzari eskindutako ikasgelan autoenplegurako sensibilizaziño saiua emoten. Vanesa Hortas, Debegesak enpresa-proiektu barrixeri laguntzeko dakan zerbitzuko arduradunak koordinatutako jardunaldixan, bestiak beste, ekintzaille-kulturia bultzatzeko oiñarrixak ezartzen ahalegindu ziran.

# "Txopitea eta Pakea" jaso eban Eibarrek



*Markiegi, Mardaras eta Aranzabal ekitaldixan.*

**Eibar foball taldia sortu zala 75 urte bete dirala eta, aurreko domekan kontzertu berezixa** eskindu eben Coliseo antzokixan Cielito Musika Bandiak eta Sostoa abesbatzak eta udalak, "Txopitea eta Pakea" sarixarekin foball taldiari errekonozimendua adierazteko agertokirik aproposena hori zala erabagi eta gero, Alex Aranzabal presidentiak, Paco Markiegi eta Juan Luis Mardaras presidente ohiak lagunduta jaso eban oroigarrixa, Eneko Andueza ziñegotzixaren eskutik.

## Mª ANGELS IGARTUA & ADOLFO CASTAÑOS *(poetak)*:

# "Andra hauek gauza handiak egin zituzten denbora tarte laburrean"



*Domekara arte "Errepublikako Emakumeen Omenaldia. Emakume olerkarien memoria historikoa berreskuratuz" erakusketa bisitatzeko aukera izango da Arrate Kultur Elkartearen Topalekuan. Gehienentzat ezezagunak diren andra idazleen omenezko erakusketari laguntzeko aurreko asteburuan poesia errezitala eskaini zuten eta gaur arratsaldean, 19:00etan, Errepublikari buruzko hitzaldia emango du Adolfo Castaños poetak. Bartzelonakoa izan arren, Mª Angeles Igartua eibartarrarekin bat egin zuenez geroztik, Eibar dagoeneko bigarren etxetzat daukala kontatu digu.*

***- Nola sortu da Topalekuan egunotan ikusgai dagoen erakusketaren proiektua?***

Bartzelonan bizi arren, beti etorri izan gara Eibarrera, nahiz eta bisita laburrak izaten ziren. Baina iaz (Mª Angeles) jubilatu zen eta, horrekin batera, Eibarren denbora gehiago ematen hasi ginen. Horrela, Maite Lorenzorekin eta bere poesia taldearekin kontaktuan ipini ginen eta, horrela, Ibarkurutzen egin zen azken emanaldian parte hartu genuen. Errezitalean Banarte antzerki taldeko Rafa Herce, Bilboko Andrea Uña eta beste batzuk ezagutu genituen. Abuztuan, gure artean berbetan, Kulturalean zerbait egiteko aukerari bueltak ematen hasi eta hori izan zen abiapuntua. Rafa Herceri emakumea eta poesiari buruzko zerbait egitea bururatu zitzaion, Andrea Uñak "27ko belaunaldia" hartu nahi zuen kontuan... baina ideia garatzen joan ahala, Errepublikak emakume mugimenduan eta batez ere hezkuntza arloan izandako eraginari begiratzea erabaki genuen eta horrela hasi ginen erakusketa prestatzeko beharrean.



***- Erakusketan 40 bat emakumeri buruzko fitxak ikus daitezke. Zeintzuk izan ziren eta zergatik gogoratu beharko genituzke?***

Bartzelonako liburutegian Errepublika, gerra eta gerraosteko sasoiko emakume olerkarien antologian bilaketa egin nuen (Mª Angelesek). Azken antologia Carmen Condek 1960ko hamarkadan egindakoa zen eta, poemak irakurrita, hamarkada horretan idatzitakoetan ere gerrak eragindako mina eta sufrimendua islatzen zirela konturatu ginen. Horregatik, emakume horiek ere Errepublikaren alabak zirela erabaki eta erakusketan euren berri ematea pentsatu genuen. Izan ere, euren esentzia errepublikarra jaso zuten hezkuntzak eman zien. Gehienak frankismoan irakasle moduan jardundakoak dira, baita familia aberatsen alabak zirenak ere. Primo de Riverak 1939an esandako "emakumearen aliaturik onena jostorratza da" esaldi famatua gogora ekarrita, kontzeptu horren gainetik idazten jarraitu zuten emakumeak izan ziren, "La lengua de las mariposas" filmak ederto erretratatzen dituen emakumeen parekoak. Jende gehienarentzat ezezagunak dira: Ernestina de Champourcin, Josefina de la Torre, Sara Berenguer, Maria Zambrano... azken hau Espainiako filosofiaren gorenean izan arren, ez da horregatik ezagutzen. Ahaztutako emakume horietako beste adibide bat Rafael Albertik umetan irakurtzen zuen "Lucio Sansaor" (1931ra arte Lucia Sanchez Saornilek erabilitako gaitzizena) litzateke. Denbora tarte laburrean gauza handiak egin zituzten emakume hauei, barregarri lagatzearren "mujeres liebres" esaten zieten.

***- Nola jaio zen zuen poesiarekiko grina?***

**Mª Angeles:** Oraindik Eibarren nengoenean, Armeria Eskolan idazkaria nintzen eta, halako batean, lan orduetatik kanpo poesia errezitala egingo zela esan zigun irakasle batek. Argiak itzalita, disko batzuetan Fernando Fernan Gomez, Nuria Espert, Ballesteros eta beste aktore batzuk poeta klasikoak errezitatzen entzun eta ikututa geratu nintzen, hor sortu zitzaidan zaletasuna. Bartzelonan Adolfo ezagutu nuen eta, maitemintzeaz aparte, elkarrekin errezitatzen hasi ginen.

**Adolfo:** Ni 14 urterekin idazten eta 20 urterekin errezitatzen hasi nintzen, ni ondoen espresatzeko modua poesiaren bidezkoa zela ikusi nuen eta.

***- Kulturala ez zaizue arrotza egiten, aspaldiko giroa ezagutu zenuten eta...***

1974. urte inguruan Kulturaleko zinekluba eta geroko debateak benetan onak ziren, hiriburu garrantzitsuenetan egiten zirenen parekoak. Franco oraindik bizirik zegoela, orduan Eibarren indartsua zen alderdi komunistako kideen eta hasiberriak ziren abertzaleen artean oso debate gogorrak ezagutu genituen.

***- Zerbait geratzen da orduko girotik?***

Eibarren, toki gehienetan bezala, injustizien aurrean sortzen dugun energia hori moteltzen joan da. Onura asko ekarri arren, instituzionalizazio politikoak kalte handia egin du arlo horretan. Baskaranen eta gaur egungo sozialisten artean ezberdintasun handia egongo dela uste dut, Otxabiña eta oraingo komunisten arteko aldea are nabarmenagoa izango da... Trantsizioa iruzurra izan zen eta horren kontra geundenak galtzen irten ginen.

# "Gazte Olimpic Team" blogarientzako lehiaketa

**Blogari gazteendako lehiaketa abiarazi dute Basque Team kirolarien euskal fundazioak eta Gazteaukera Euskadiko gazteriaren atariak.** Irabazleek 2016ko Rioko Joko Olinpikoen eta Paralinpikoen berri emango dute bertatik, gastuak ordainduta.




18 eta 30 urteko gazteentzako Gazte Olimpic Team lehiaketa jarri dute abian Gazteukerak eta Basque Team fundazioak elkarlanean. Komunikatzeko gaitasuna izatea eta euskaraz eta gaztelaniaz maila ona edukitzea beharrezkoak dira, izan ere, irabazleek 2016ko abuztuaren 5ean hasiko diren Rioko Joko Olinpiko eta Paralinpikoen berri emateko aukera izango dute, blogari gisa.

Lehiaketaren irabazleak zortzi izango dira eta lauko taldeetan arituko dira lanean; talde bat Olinpiaden berriemailea izango da eta bestea Paralinpiadena. 9 egunetako jarraipena egin beharko dute, bideoak, argazkiak, elkarrizketak eta beste hainbat formatutako informazioa kudeatuz eta Gazteaukerako blogean argitaratuz. Batez ere, Baque Team-eko kirolarien jarraipena egin beharko dute eta lana errazteko euskal kirolarien inguruko informazioa emango zaie Riora joan aurretik eta baita eurekin harremanetan egoteko aukera ere.

Honez gain, blogariak gainerako hedabideekin ere komunikatu behar dira, irrati, telebista zein prentsarako elkarrizketak emanez. Titulurik eskatzen ez den arren, ingelesez komunikatzeko gaitasuna garrantzitsua da, batez ere, atzerriko komunikabideekin lanean jarduteko. Euskaraz eta gaztelaniaz, bietara idatzi beharko dute eta horrenbestez, maila ona izatea beharrezkoa da. Dena dela, bidaiaren aurretik, blogariek prestakuntza berezia jasoko dute zereginak modu egokienean egiteko.

### Lehiaketaren nondik norakoa

Parte-hartzaileek testu bat, ikus-entzunezko produktu bat edo gauza biak bidali beharko dituzte "Euskal selekzioak 10 domina eskuratu ditu Joko Olinpikoetan" gaiari lotuta. Testuaren estiloa askea da, (elkarrizketa, narrazioa, kronika, erreportajea, …) orri bat edo bi izan behar ditu eta lan bera euskaraz eta gazteleraz bidali beharko da (Word edo PDF formatuetan). Bideoak berriz, 2 eta 5 minutu arteko iraupena izan behar du eta hau ere, ahal den neurrian bi hizkuntzak tartekatzen egin beharko da (avi, mov edo mp4 formatuetan) . Bideoek ez dute azpitituIurik eraman behar eta erabilitako abestiak lizentzia librekoak edo "creative commons" lizentziadun kantuak beharko dira izan.

Lanak gazteaukera@gmail.com helbidera bidali behar dira webgunean dagoen parte hartzeko fitxarekin batera. GazteBiHitza atarian harpidetza egitea ere beharrezkoa da lehiaketan parte hartzeko. Epaimahaikideek komunikazio gaitasuna, originaltasuna eta kalitatea hartuko dituzte kontuan irabazleak hautatzeko orduan.

### Parte hartzeko baldintzak

Esan bezala 18 eta 30 urte bitartekoa izan behar da lehiaketan parte hartzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatutakoa. Bidalitako lanei dagokienez, originalak izan behar dira eta antolatzaileek jarritako gaiarekin lotutakoak. Ekimenean banaka jardun behar da eta beraz, ezin da taldeka parte hartu.

Izena emateko epea zabalik dago urte hasieratik eta abenduaren 15a izango da lanak bidaltzeko azken eguna. Irabazleen izenak 2016ko urtarrilaren amaieran argitaratuko dira Basque Team-eko eta Gazteaukerako twitter eta facebook kontuetan.








# ORBEA
## Garaietara egokitzen jakin duen marka

*175 urte bete ditu aurten Orbeak. Gaur egun lantegia Mallabian badago ere, 1840tik 1975. urtera arte Eibarren egon zen eta, zalantzarik gabe, pisu handiko enpresa izan da Eibarko industriagintzaren historian. Eibarren armak egiten hasi zen enpresak, urtean, 250.000 bizikleta saltzen ditu gaur egun mundu osoan. 180 langilek osatzen dute Mallabiako fabrikako lantaldea. Hemendik kanpora, Portugaleko lantegian 50 langile ditu, eta filialak AEB, Italia, Ingalaterra, Belgika, Alemania, Australia eta Portugalen. Gainera, 60 merkatutan dago, mundu osoan dituen inportatzaileen bitartez.*

**1840** urtean sortu zuten Eibarren Juan Manuel, Mateo, Casimiro eta Petra Orbea Murua anai-arrebek "Orbea Hermanos". Orbearen produktu garrantzitsuena arma motza izan zen: pistolak eta errebolberrak. Urtez urte hasierako tailer txikia haziz joan zen: 1895ean 50 bihargin zeuden Urkizu kaleko tailerrean eta urtean 80.000 errebolber egiten zituzten. Garai hartan "Orbea y Cía" izena hartu zuen enpresak.

XX. mendearen lehenengo hamarkadan langileen kopurua handituz joan zen, 405 inguru ziren eta produkzioaren % 90 esportatzen zen. Lehen Mundu Gerran izan zuen Orbeak salmenta unerik gorenena. 725.183 arma esportatu zituzten 1916an, baina gerra amaitzerakoan en-



Juan Manuel, Mateo, Casimiro eta Petra Orbea Murua anai-arrebek sortu zuten "Orbea Hermanos". Argazkian, horietako hiru, 1860. urtean.




**Mª DOLORES SALAS MAKINAI**
**(ANSA BITXITEGIA)**

*2015eko urriaren 10ean hil zen, 83 urterekin*

FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi.



presarentzako zailtasunak iritsi ziren. Orbea familiaren zati bat Gasteizera joan zen bizitzera, eta Eibarren gelditu ziren orbeatarrak makina-erreminta produzitzen hasi ziren. Tailerreko 300 langileek, urtean 40.000 errebolber egiteaz gain, 40 tona makina-erreminta ekoizten zituzten.

**Bizikletak 1930eko hamarkadan**

1930eko hamarkadan, Esteban Orbea gerentea zela, enpresak izena aldatu zuen ("Orbea y Cía S.A.") eta pixkanaka armen ekoizpena alde batera lagatzen joan zen. Gerra zibila hasi baino lehen tornoak, fresadorak, taladroak... egiten zituzten eta garai hartan hasi ziren bizikletak sortzen. Gerra zibila amaitu zenean Orbeako 1.000 langileek urtean 50.000 bizikleta egiten zituzten. Garai hartan zabalkunde-etapa hasi zen, baina 1960ko hamarkadan sektorea krisialdi sakon batean sartzen hasi zen.

**Orbea kooperatiba**

1969. urtearen amaieran krisiak hondoa jo zuen. Orbeako 1.500 langileek ez zuten soldata kobratzen eta euren lanpostua arriskuan zegoen. Egoera jasangaitzaren aurrean, langileek marka eta instalazioak erosi zizkioten Esteben Orbeari, eta horrela "Cooperativa Orbea" jaio zen 1971n, Mondragon Kooperatibaren barruan. Urte batzuk geroago, 1975ean, Eibar utzi eta Mallabiara eraman zuten enpresa.

1970eko eta 1980ko hamarkadak ez ziren errezak izan enpresarentzat. Salmentak eta, ondorioz, langileak murriztuz joan ziren (1980an 200 langile). Hamarkada horretan lasterketetako bizikletetan jarri zuten arreta.

Sektorearen bilakaeran 1990eko hamarkada oso garrantzisua izan zen. Mendiko bizikletaren *boom*-a etorri zen. Gainera, **Miguel Indurain**ek bost Tour irabazi zituen.




Orbeak bikoiztu egin zuen ekoizpena. Ondoren, berriro etorri zen barealdia.

1998tik aurrera etapa berria zabaldu zen Orbearentzat. Inbertsio handiak egiteko garaia iritsi zen, produktua garatu eta marka nazioartera zabaltzeko. Hainbat herritan filialak sortu dituzte eta AEB bihurtu da Orbearen merkatu nagusiena, Europarekin batera.



*MG Orbea taldeko Perico Delgado, Ricardo Zuñiga eta Peio Ruiz Cabestany txirrindulariak, 1985. urtean.*

## Talde eta kirolari ospetsuak

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, Orbea konpetizioko kirolaren munduan burubelarri murgildu zen, batez ere errepideko txirrindularitzan. 1980an sortu zen lehenengo errepideko taldea. **Caja Rural, Orbea Danena** eta **Orbea Gin MG** taldeetan parte zuzena izan zuen Orbeak; Gin MG taldearekin 1985eko Espainiako Vuelta irabazi zuen **Perico Delgado**k. 1992an mountain bike-eko lehendabiziko taldea sortu zuten, **Jokin Mugika** garai hartako txirrindulari ospetsuarekin.

Pekinen izandako Joko Olinpikoetan 3 domina lortu zituen Orbeak. Euskaltel Euskadiko **Samuel Sanchez**ek urrezkoa lortu zuen, eta **Julien Absalon** eta **Jean Christophe Peraud**-ek urrezko eta zilarrezko dominak eskuratu zituzten mendiko kategorian. Orbea beti egon da kirolari oso lotuta. **Euskaltel-Euskadik**, esaterako, ospe handia eman zion aurreko hamarkadan. Gaur egun **Cofidis** taldea babesten du.



# Mª Angeles Arrieta Murgoitio

(2013-X-25)

*Bi urte badira ere gure aldetik joan zarela...*
*EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO*
*IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA.*

**Jose Miguel eta Jaione Gorospe, zure senarra eta zure alaba**



# Jokin Diez

## (ORBEA-KO PRENTSA ARDURADUNA)

# "Bizikleta produktu kamaleonikoa da"

***– Nolakoa da egungo Orbea?***

Bi planta ditugu, handiena Mallabian (180 langilerekin) eta bestea Portugalen (50 langilerekin). Mallabian diseinua, ikerkuntza, muntaia eta komertzializazioa egiten ditugu. Era guztiko bizikletak egiten ditugu: umeentzakoak, errepidekoak, mendian ibiltzekoak, trekking-erako bizikletak, elektrikoak... Gaur egun Cofidis errepideko taldea patrozinatzen dihardugu. Eta Enduro-n beste talde bat daukagu (Mountain bike-eko alor bat da). 1930ean bizikletak ekoizten hasi zenetik, patrozinioa beti egon da Orbearen ADN-an. Espainiako Vueltako lehenengo edizioetan egon ziren marka bakarrak ORBEA eta BH izan ziren. 1980ko hamarkadatik aurrera talde asko patrozinatu ditu Orbeak: Seat Orbea, Gin MG, Orbea Danena, Orbea Caja Rural... Azkeneko 20 urteetan Euskaltel Euskadirekin egon gara eta iaz Cofidis-ekin hasi ginen. *"Konpetiziorako egokia den produktua, erabiltzailearentzako egokia izango da"*, hori da gure leloa.

Orbea markaz gain, badaukagu triatlonean erabiltzen den neopreno marka bat: Orca. Eta azken hilabeteetan bezeroek asko baloratzen duten pertsonalizazioaren gaia jarri dugu martxan: webgunearen bitartez, eta MyO izeneko erreminta erabilita, zuk nahi duzun bizikleta disenatu dezakezu. Koloreak, izena edota osagaiak aukera ditzakezu, eta 4 asteko epean zuk nahi duzun lekuan jaso dezakezu, gaineko kosturik gabe. Gaur egun, orokorrean, bizikleten kalitatea oso ona da, eta pertsonalizazioak besteengandik bereizteko aukera ematen digu.

***– Bizikleta elektrikoen gama ere badaukazue...***

Oso arlo garrantzitsua da guretzako. Herrigunerako edota mendirako bizikleta elektrikoak sortu ditugu. Horiek daukaten sistema elektrikoari esker, lehen bizikleta erabiltzen ez zutenei bizikletarekin gozatzeko aukera paregabea ematen diegu. Horretaz gain, mendian, esate baterako, erabiltzaile berri bat sortu dela ikusten dugu: 40-50 urtekoek bizikleta elektrikoari esker orain dela 15 urte egiten zuten gauza bera egin dezakete, hainbeste esfortzu egin gabe. Herrigunean, berriz, alternatiba ezinhobea da, autoaren ordez erabil daiteke eta transporte publikoaren osagarria izan daiteke.

***– Onura asko ditu bizikletak.***

Bizikleta gure bizimoduan sartzeko gai baldin bagara denok irabaziko dugu: osasunaren ikuspegitik, ingurugiroaren ikuspegitik... Bizikletari esker gauza asko egin daitezke, eta trukean oso gutxi eskatzen dizu. Beti modan egongo dela uste dugu, gizartearen beharretara egokitzeko gaitasuna baitu (aisialdia, garraioa, kirola...). Kamaleonikoa da.

**– Zer gelditzen da kooperatiba sortu zen garai hartatik? Zelan ospatuko duzue urteurrena?**

Kooperatiba izaten jarraitzen dugu, eta kooperatiba sortu zutenen seme-alaba asko daude Garai berrietara egokitzeko filosofiak bizirik dirau gure artean, eta hori oso garrantzitsua da. Atzera begiratzea gustatzen zaigu, abiada handiagoa hartu ahal izateko. Abenduan Orbearen historia eta testigantzak jasotzen dituen liburua aterako dugu. Naturako lau elementutan oinarritutako liburua izango da: *Lurrean*, Orbearen lekuei buruz hitz egingo dugu: Eibar, Mallabia, Euskadi... *Uretan* produktuari buruz hitz egingo dugu: pistolak lehenengo eta behin, umeen kotxeak eta bizikletak. *Sutan* konpetizioari buruz ariko gara. Eta azkenik *Haizea* kapituluan pertsonei buruz hitz egingo dugu: 175 urteetan zehar Orbeatik pasatu diren pertsonen inguruan hitz egin, sortzaileak, Orbea kooperatiba sortu zutenak... Horretaz gain dokumental bat ere prestatzen dihardugu.



# FRANCISCO LAVADO SUAREZ

*(2015eko urriaren 18an hil zen, 93 urterekin)*

**"Ez da agur esaten norbait maite duzunean.
Maitasuna ez delako joaten bihotzean gorderik dagoenean"**

ETXEKOAK

*Senideen izenean, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.*

# GREMIOEN GIDA

## ANTENAK

**BALATZ C.B.**
instalakuntzak eta konponketak
antenak - telebista
Bidebarrieta, 37 — Tfnoa. 943 20 05 08
balatz@euskalnet.net — Faxa. 943 20 04 94

**Antena instalazioak**
TDT / Satelitea
**Informatika Zerbitzua**
Sareak /Antibirusa
Sistema Operatiboa
**Miguel Angel Garcia**
Mugikorra: 609 250 858
garciagmiguel@movistar.es

**trinmer**
Ego Gain, 2 - Bac
Tfnoa. 943 12 73 50
www.trinmer.com
TELEKOMUNIKAZIOAN PROFESIONALAK

## AROTZAK

**ateak EDER aroztegia**
ATEAK, HORMA-ARMAIRUAK, TARIMAK...
BURDINDEGIKO ARTIKULUAK SALGAI - GILTZEN KOPIAK
EBANISTERIA - ERAKUSKETA
iraner
Bizkaia etorbidea, 10 (ERMUA)
943-174925 iranercb@gmail.com 666918745

**SUA**
SUKALDE ALTZARIAK
AROZTEGIA
*Iparragirre Anaiak*
F. Calbetón, 4 behea — Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa — Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

**ulmar S.L.**
metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta PVC-ko aroztegia
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50
ERAKUSKETA
*EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)*

## ELEKTRIZITATEA

943 530 356
688 674 242
669 934 964
electricidad **iparelek s.l.**
INSTALAZIOAK ETA MANTENIMENDUA
iparelek@gmail.com — iparelek@iparelek.com

**THELECER**
TELEKOMUNIKAZIOAK
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
*24 orduko urgentziak*
610 532 922

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION TECNICA DE EDIFICIOS
ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA **E.I.T.**
info@ajtoficina.com tlf. 943 20 12 30
AJT zihurtasuna s.l.p.
Barrena, 6 - behea ezk.

*HEMEN ZURE TOKIA izan nahi baduzu...*

# Informazio gehiagorako

943 20 67 76

## ERREFORMAK

ESTUDIOS ARRILLAGA
PROIEKTUAK-ERREFORMAK-BERRIKUNTZAK
ARRAGUETA 12 -Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 -Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**
Superfizie mota guztietako **garbiketa** eta **mantenimendu** zerbitzua
Tfnoa. 943 031 082
Mobila 688 609 171
www.multiservicioseibar.com
Barrena, 21 - 1. F

**TREJO**
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Soraluze
*Garbiketa eta mantenimendua*

## IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.
Zure etxea, bulegoa, tailerra... aldatzen laguntzen dizugu etorkizun hobeaz goza dezazun
Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa. 943-120108
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

K21
**MUGICA**
ITURGINTZA
Aire Egokitua, Iturgintza, Gas instalazioa, kalefakzioa, petrolio-produktuak, bainuen erreformak eta abar...
**HANSGROHE** kanilen banatzailea
Zoru erradiatzailea
Eguzki-energia
Egigurentarren, 18
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**
TAILERRA: ERREKATXU, 3an
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
eta faxa: 943 203 903
ERAKUSKETA
Arikitxaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES AIXA
José Luis Iriondo
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak
Tfnoa. eta Faxa. 943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto**
PINTOREAK
Zoru mota guztiak
Pinturak
Dekorazioa
Errebal, 21
Tel/Fax: 943 201 922 bagliettoeibar@kaixo.com

**MALVAR**
PINTURAS
Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ**
PINTURA OROKORREAN
BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura, FATXADAK, PINTURA BEREZIAK, ENPAPELATUAK, GOTELÉ...
Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-
696-565394 / 943-030540
victor-fraiz@hotmail.com

*...deitu 943-206776 telefono zenbakira*



*Lazkano baloiarekin Durangoren aurka.* FELIX BEITIA

# Avia Eibar Rugby taldearen lehen garaipena

**Babesle berriarekin batera, denboraldiko lehen garaipena lortu zuen** gure herriko errugbi klubeko talde nagusiak. Iaz denboraldi bikaina egin ondoren, aurten makalago diharduen Durango izan zen eibartarren aurrean makurtu behar izan zuena (20-7); hortik Peio Urkidiren mutilek lortutako garaipenaren garrantzia, batez ere azken postuetatik ihes egiteko borrokan. Urtziren eta Bixentetxoren entseguak (azken honek bere lehen entsegua lortu zuen senior taldearekin) funtsezkoak izan ziren eibartarren garaipenerako. Domekan jaitsi berria den Vigoren zelaian jokatuko dute eibartarrek.

**Hierros Anetxeren hamarkada**

Anetxe izan da Eibar Rugby Taldearen babesle ofiziala azken hamar urteotan eta hemendik aurrera Avia-Adenor enpresak hartuko du haren tokia. Avia printzipalena izanda ere, herriko errugbilariek Taes, Impratex eta Guridi tabernaren laguntasuna jasoko dute.

# Somos Eibar Eskubaloiaren bigarren berdinketa

**Oraingoan Iruñeko Atarrabian berdindu zuten Fernando Fernandezen mutilek,** multzoko talde indartsuenetako baten aurka jokatutako partiduan. Atsedenaldira 10-9 galtzen erretiratu ziren eibartarrak eta, bigarren zatian 15-11 eta 16-12 atzetik joan eta gero, azken minutuetan jokoa doitzen asmatu zuten neurrian irabazteko aukera ere izan zuten. Puntu garrantzitsua Somos-ekoek lortutakoa taldeak hainbat bajei aurre egin behar dielako eta oraingoan ere bost jokalari berri izan zituelako. Emaitza horrekin Eibar Eskubaloia Tolosa eta Uharte liderrengandik puntu bira dago sailkapenean.



**Haritza garaile**

Gipuzkoako Lurraldeko 1. mailako partiduan eibartarrak Zumarragako Laztimendi baino gehiago izan ziren (25-22): merituzko garaipena azken denboraldiko talde onenetariko baten aurka lortutakoa. Hurrengo jardunaldian Donibane liderraren aurka jokatuko dute.

# 85 emakume Eibarko Nazioarteko Judo Torneoan

**Zapatuan Ipurua kiroldegian jokatutako judoko gure herriko XX. nazioarteko torneoan,** 85 parte-hartzaile izan ziren. Portugal, Andorra, Kantabria, Aragoi, Errioxa eta Euskal Herriko ordezkariekin batera lehiatu zuen Kalamuako Nekane Muguruzak eta, ez hori bakarrik, bere mailan txapela jantzi baitzuen finalean Nafarroako aurkari beteranoari irabazita. Eibarren izandako hamahiru kluben artean, aipatzekoa da Errioxatik etorritako kirolari itsuaren kasua eta berarekin lehiatu zutenen kiroltasuna.



Goizean, bestalde, umeendako San Andres Torneoa jokatu zen, hamar klub ordezkatzen zuten 115 neska-mutilekin. Lehiaketa horretan Kalamuako 17 ordezkari izan ziren, uzta bikaina bilduz: urrezko bost domina, zilarrezko sei eta brontzezko hiru.



*Kalamuako Manu Agirre Portugaletik etorritako taldearekin.*



*370 gizonezkok eta 3 emakumezkok hartu zuten parte martxan.*

# Giro ezinhobea Debabarreneko VI. BTT Martxan

**373 lagun elkartu ziren domeka goizean Elgoibarko Mintxeta kirolgunean** Debabarreneko BTT Martxaren seigarren edizioa jokatzeko. Parte-hartzaile gehienak eskualdekoak izan ziren, baina Burgos, Asturias eta Tarragonatik etorritakoak ere izan ziren; hori bai, emakume gutxik hartu zuen parte, hiru besterik ez. Aukeran zituzten ibilbide biak (25 eta 45 kilometrokoak) Karakatetik pasatu ziren eta lau anoa postuetan -azkena Mintxetan bertan- indarra hartzeko aukera izan zuten kirolariek. Proba amaituta, eskualdeko kirol zein turismo enpresek eskainitako 40 opari zozketatu ziren.

## Ipurua Tallarra herritarrekin adostu nahi du Eibar Foball Taldeak

**Horretarako *"parte-hartze prozesua"* zabaldu nahi dute herritar, elkarte eta beste blubekin.** Asmo hori kaleratu zuten klubetik Eibar KE-ren eta Gipuzkoako Futbol Federazioaren artean sinatutako hitzarmenaren harira emandako prentsaurrekoan. Hitzarmen horrekin lotuta, azaroaren 6tik aurrera UEFA B mailako entrenatzaileendako ikastaroa eskainiko du klubak *"Ipurua Tallarraren abiapuntu moduan"*. Izena eman duten 22 lagunek 25 kilometroren bueltan dauden herrietakoak dira, *"300.000 biztanle inguru hartzen duen Eibarko eragin area barruan"*. Bestalde, domekan Eibarrek Bartzelonako Nou Camp-en jokatuko duen partiduan ez da Eskozia la Bravako zalerik izango, *"iazko denboraldian han jasotako mespretxuzko tratuaren aurrean protestatzeko"*. Gure herrikoak ez dira Nou Camp-en jasotako tratuarekin kexatu diren zala bakarrak.





## Herri krosaren 3. edizioa bihar

**Gaur amaitzen da epea bihar 18.00etan jokatuko den proban izena emateko.** Lasterketak aukera polita eskainiko du Asier Cuevas omentzeko eta, aldi berean, herri mailan kirola egiteko. Txip-ak eta dortsalak bihar 11.00etatik 13.00etara eta 15.15etik aurrera jaso ahal izango dira. Aurreko bi edizioetakoari jarraituz, parte-hartze handia espero da.

## Foball-zaletua: azkenak liderrari irabazten dionean

**Fontaneria Mujikak ezustea eman zuen azken jardunaldian** ordura arte liderra zen Azkena Adahiri irabazita. Partidu horretako Andresen golak Durango lidergoan bakarrik laga zuen, azken honek ez baitzuen kalerik egin (5-2 nagusitu zitzaion Slow Xok-i). Esmorgak ere kale egin zuen eta, sailkapenean atzetik duen Bar Txokorekin 1-3 galdu ondoren, liderrarengandik bost puntura dago gaur egun.

## Waterpoloko harrobia indartsu

**Senior mailako taldeak porrotarekin hasi zuen denboraldia Euskal Ligan** eta Orbean amore eman behar izan zuen Tximistarriren aurrean (10-14), lehen zatian irabazten joan eta gero. Bihar Iruñan UPNA izango dute aurkari ligako bigarren jardunaldian. Indartsu dabiltzanak harrobiko jokalariak dira: benjamin mailako taldeak Orbean antolatutako torneoa irabazi zuten, Oiasso eta Waterpolo Donostiren aurka eta, bestetik, Larrainari eta Oiassori lagatako neskak primeran jardun zuten, partidu biak irabaziz.


Funeraria·Ehorztetxe
Mugica

EIBAR
ELGOIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko erdialdean
Bulegoa Bidebarrieta, 20

24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi



IÑAKI BAGLIETTO ARRESE
I. urteurrena
(2014-X-24)

Zure kuadrilakook gogoan zaitugu






*Berbetan programako kide diren tabernarientzat koktel ikastaroa antolatu du …eta kitto! Euskara Elkarteak azaroaren 3rako. Edariekin nahasketa bereziak egiten erakusteaz gain, euskara naturaltasunez praktikatzea da ikastaroaren helburu nagusia. Ander Diez Basque Culinary Centerren ikasitako sukaldariak emango du ikastaroa.*

## ANDER DIEZ (sukaldaria)

# "Euskara esparru guztietara zabaldu behar da, baita koktelen mundura ere"

***- Nondik datorkizu koktel zaletasuna?***

Basque Culinary Centerren ikasi nuen eta han sortu zitzaidan koktelen inguruko jakin-mina, batez ere ezagutu nituen sukaldaritza munduko erreferentziengatik. Formazioa amaitu eta gero, Basque Culinary Centerreko bost ikaslek jatetxea zabaldu genuen Ordizian. Bakoitzaren jatorria eta izaera errespetatzen dituzten platerak egiten ditugu eta neri bereziki sukaldaritza tradizionala eta teknika aurreratuak nahastea gustatzen zait. Jatetxean, ordea, koktelak "jokoz kanpo" daude eta, horregatik, Stick Cocktails etxean nabil koktelgile moduan edo ikastaroak ematen.

***- Zer ikasteko aukera egongo da zure ikastaroan?***

Koktel desberdinak egiten ikasiko dugu: erlaxatzekoak, freskagarriak eta "trago luzekoak". Erabiliko ditugun osagaiak ez dira etxean egunero erabiltzen direnak, baina edozein modutan ere gaur egun edozein dendatan aurki ditzakegunak izango dira. Ezohikoak dira, baina ez ezezagunak. Koktelen munduak indarra hartzen dihardu eta jendeak gauza berriak dastatzeko gogoa du. Batez ere gazteak ausartzen dira gauza berriak probatzera. Heldu batzuk ere animatzen dira, baina ez neurri berean. Sarritan, adin jakin bat duten pertsonek "betikoa" eskatzera jo ohi dute. Baina, esan bezala, denetarik dago. Estatu mailan Bartzelona eta Madril hartzen ditugu erreferentziatzat eta mundu mailan, Britainia Handia da koktelen munduan esanguratsuenetarikoa.

***- Zer iruditzen zaizu ikastaroa euskara praktikatzeko abiapuntu izatea?***

Ikastaroa dibertigarria da, beraz, euskara praktikatzeko aukera ezin hobea izango dute parte hartzen dutenek. Garrantzitsua da euskara ahalik eta eremu gehienetara zabaltzea, baita koktelen mundura ere eta, batez ere, herriko jatetxe eta tabernetara. Praktikatzen hastea ausardia kontua izan daitekeela uste dut. Behin lehen pausoa emanda eta beldurrak uxatuta, errazagoa izango da ondorengo guztia. Gure hizkuntzaren presentzia herriko arlo guztietan bermatu behar dugu.

LEIRE ITURBE




# Liburu Azoka domekan itxiko da

**Euskadiko Liburu Azoken Batzordeak udalaren laguntzarekin antolatutako Eibarko Liburu eta Diska Azoka** domekara arte egongo da martxan. Aurten Untzagako jubilatu etxearen aldean ipini dute azoka, baina urteroko martxan literatur arloko lanik berrienak %10eko deskontuarekin eros daitezke eta aukerako liburuak ere ipini dituzte salgai. Berritasunik ere bada: salmentarako postuekin batera, aspaldiko euskal aldizkariei eskainitako erakusketa ere ipini dute ikusgai. Goizez 11:00etatik 14:00etara zabalduko dute eta arratsaldez 17:00etatik 20:30etara.

*Sailkatutako perretxikoak ikusteko aukera izan zen.* LEIRE ITURBE





# 155 espezie Jardunaldi Mikologikoetan

**Klub Deportiboko Mendi Taldearen eskutik aurreko asteburuan egindako** Jardunaldi Mikologikoek, betiko martxan, interes handia piztu zuten: zapatuan herriko 100 bat ikaslek perretxikoak biltzeko irteera egin zuten Oleta eta Landako urtegira eta 155 bat mota ezberdin ekarri zituzten bueltan. Aranzadi zientzia elkarteekoek lagunduta, horiek sailkatzen eman zuten arratsaldea, domeka goizeko erakusketarako prestatzen.

# I. Ojanguren saria Oskar Gaskonentzat


12 sari banatuko dira guztira argazki lehiaketan.

**Indalezio Ojanguren XXVIII. Argazki Lehiaketaren epaimahaiak zapatuan aukeratu zituen aurtengo irabazleak.** Sari nagusia Irungo Oskar Gaskon Marañoni ematea erabaki zuten aho batez, zuri-beltzezko "Manos artistas" izenburuko bildumagatik. Horrekin batera, lehiaketako beste sarien irabazleak eman zituzten ezagutzera: Indalezio Ojanguren Sariak Jose Beut Duatok (Valencia), Luis Irisarri Tejadak (Irun), Jose Ramon San Jose Ruigomezek (Malaga) eta Mikel Orozko Venturak (Bilbo) eskuratu dituzte; Euskal Herri mailako Indalezio Ojanguren sariak, berriz, Jose Agustin Gurrutxaga Garagarzak (Bergara) eta Juan Antonio Palacios eta Virginia Arakistain Ariznabarreta eibartarrak jaso dituzte; herri mailan Einer Rodriguez Ponce, Jose Luis Irigoien eta Oskar Baglietto Arana saritu dituzte; eta haurren saria Iker Perez Martinentzat (12 urte) izan da. Edizio honetan 75 bilduma izan dira lehian, 54 parte-hartzailek aurkeztuta (horietako 23 eibartarrak izan dira, 18 Euskal Herrikoak eta beste 13ak Espainiakoak). Saritutako lanak eta beste hainbat azaroaren 15era arte Portalean ikusgai egongo dira, gaur arratsaldean inauguratuko duten erakusketan.

## laburrak

### TXISTULARIEN KALEJIRA

**Domekan 11:00etatik aurrera herrian zehar kalejiran ibiliko dira Usartza Txistulari Taldekoak. Besteak beste, "Bautista Basterretxe" eta "Txarmangarriak" zortzikoak eta "Baionako martxa", "Azkoaga" eta "Txanbolin" kalejirak joko dituzte.**

### RUGBIKOEN EGUTEGIA SALGAI

**16 urtetik beherako Eibar Rugbi Taldekoek jokalarien argazki ikusgarriekin osatutako egutegia ipini dute salgai Unbeko tabernan eta Guridin, 7 eurotan, taldearentzat dirua batzeko asmoz. Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiete egutegia egiten lagundu duten guztiei, baita erosten duenei ere.**

# Zapatuko ipuina Liburutegiaren egunean

**Beste batzuetan baino lehenago, bihar eskainiko dute Zapatuko Ipuina,** urriaren 24a Liburutegien eguna dela ospatzeko. Vanessa Gonzalez ipuin kontalariak hiru urtetik gorakoentzat egokia den "Barrenak astintzen" izenburuko saioa egingo du umeen liburutegian, 18.00-etan hasita. Sarrera doan izango da eta *"emozioak astintzeko"* prest dauden guztiak ongi hartuko dituzte.


Vasnessa Gonzalez ipuin kontalaria.



# Sare sozialen hitzaldi jendetsua

**Gurasoak Berbetan egitasmoaren barruan ...eta kitto! Euskara elkarteak antolatutako** "Gazteak eta sare sozialak" hitzaldiak interes handia piztu zuen. Martitzen arratsaldean 25 bat lagun elkartu ziren euskara elkartearen egoitzan eta Oihana Orcajo hezitzailearen azalpenak arreta handiarekin jarraitu eta gero, ikasitakoarekin pozik irten zen jendea.



# SANTI GARAY HINOJAL

(2015-X-17)

*...beti alaitsu, beti aurrera begira,*
*zure oroimena zu bezain indartsua,*
*zure irrifarra gurekin betiko.*



# Tolosako abesbatzak Coliseoan

**Eibarko XXIII. Musikaldiaren barruan eta 47. Tolosako Abesbatza Lehiaketaren harira,** aurten ere goi mailako abesbatzen emanaldiekin gozatzeko aukera izango da. Astelehenean Letoniako "Emmils Darzins" abesbatzak Coliseo antzokian kontzertua emango du eta eguaztenean, berriz, Suediako "Stockholms Musikgymnasium" abesbatzaren txanda izango da.

Letoniako abesbatza Nora Vitinak eta Rudolfs Kreslinsek zuzentzen dute eta musika koraleko errepertorio zabala interpretatzen du, antzinako musikatik hasi eta bereziki koroarentzat idatzitako pieza garaikidekin amaituta. Eta Bengt Ollenek 1994az geroztik zuzentzen duen "Stockholms Musikgymnasium" abesbatza, berriz, oso entzutetsua izatera ailegatu da, *"teknika ona eta eskarmentu handia"* dituelako. Kontzertu biak 20:30ean hasiko dira eta sarrerak 5 euro balio du.



*Kontzertua Coliseoan eskainiko dute domekan, eguerdiko 12.30ean.*




## Natalia Garridoren kartela Sanandresetan

**Aurtengo Sanandresak iragartzeko kartela Natalia Garrido Acebes eibartarraren** "Gazteak baleki zaharrak baleza" izenburukoa izango da, lehiaketako epai-mahaikideek astelehenean bere kartela aukeratu zuten eta. Umeen artean, 11-14 urte bitartekoen mailan, saria Miren Ereñari (11 urte) eman diote "Eraman" kartelarengatik; eta 10 urtera artekoen mailan irabazlea Patxi Uribe Gallastegi (10 urte) izan da, "Sanandresak balkoitik" lanarengatik. Aurtengo edizioan ia 100 lan izan dira lehian (42 helduen mailan eta gainontzekoak umeen maila bietan).

## Eibar K.E. Exfibarren

**Arrate Filatelia Elkartearen eskutik azaroaren 22tik 29ra bitartean Portalean egingo den** Exfibar XLVI. Seilu Erakusketan erabiliko duten zigilu-markatzekoa aurten Eibar foball taldearen sorreraren 75. urteurrenari eskainiko diote (bakarrik inaugurazio egunean, azaroaren 22an erabiliko dute, 11:00etatik 14:00etara). Oroigarri modura erabiltzeko zigilu-markatzekoa eta urteurrenari eskainitako seilua Correosen eskatu dute antolatzaileek.

## "Politiko-Poetiko 5" gaurtik aurrera Portalean

**Gaur arratsaldeko 19:00etan zabalduko dute Portaleko erakusketa aretoan "Politiko-Poetiko 5"** proiektuaren inguruko erakusketa, Jon Amorrortu, Izaro Ieregi, Ivan Jimenez, Mauri Martin, Blanca Ortiga, Ruben Pino, Rakel Prats, Ryoko (Sarah Rasines & Alberto Meher) eta Mariana Unda artisten lanekin. Artearen munduan gai politikoak eta poetikoak ardatz duten argazkiak, litografiak, pinturak, eskulturak eta bestelako artelanak azaroaren 15era arte ikusteko aukera izango da, martitzenetik domekara bitartean 18:30etatik 20:30etara.



Izaro Ieregi Iván Jiménez Mauri Martín Blanca Ortiga Rubén Pino Rakel Prats Ryoko (Sarah Rasines & Alberto Meher) Jon Amorrortu Mariana Unda

Isasi, 31
943 207 737
Egunero 06.00-22.00
Etorri! Zure etxian egongo zara!!
Astelehenetik ostegunera PINTXO-POTEA!
KAFETEGIA OKINDEGIA
SUTONDO

ITZULPEN ZERBITZUA
ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.
elkartea@etakitto.com

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, NORA Gimeno Juaristi, hillaren 14an urtetxua egin zenduan-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MIKEL, domekan 11 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LOUISE!!! Gaur hiru urte!!! Patxo haundi bat amama Mariasun, aittitta Aitor eta Lia Liren partetik!!!



Zorionak, ENARA, astelehenian 10 urte egingo dozuz-eta. Etxekuen eta, batez be, aitxitxa Eduardo eta amama Itziarren partez.



Zorionak, ITSASO!, hillaren 20xan zure eguna izan zan-eta. Muxu pilla bat, potxolita. Maite zaittugu!!



Zorionak, GERMAN, domekan bederatzi urte beteko dozuz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez. Maite zaittugu!



Zorionak, ALEJANDRA, atzo hiru urte bete zenduzen-eta. Amama ARRATE eta famelixaren partez.



Zorionak, ARAIA, gaur bost urte egitten dozuzelako. Muxu potolo bat famelixaren eta, batez be, ARATZen partez.



Zorionak, GORKA eta MIKEL Latorre Lasuen, zuen 10. eta 6. urtebetetzian. Muxu haundi bat Markelen partez.



Zorionak, EDU (hillaren 16xan urtiak egin zenduazen) eta ITZA (gaur 12 egingo dozuz). Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez eta ondo ospatu!



Zorionak, LEIRE, bixar lau urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, KEPA, bixar sei urte egingo dozuz-eta. Patxo haundi bat etxeko guztion partez.

## hildakoak

- **Antonia Benito Berasaluze.** 86 urte. 2015-X-14.
- **Rosario Arosa Gabilondo.** 94 urte. 2015-X-16.
- **Santiago Garai Hinojal.** 56 urte. 2015-X-17.
- **Francisco Lavado Suárez.** 93 urte. 2015-X-18.
- **Javier Landaluze Lezeta.** 78 urte. 2015-X-19.
- **Benito Carrero Garcia.** 89 urte. 2015-X-20.
- **Jose Mª Zabala Olazabal.** 87 urte. 2015-X-21.

## jaiotakoak

- **Yassin El Hallabi.** 2015-X-9.
- **Nicolas Bolunburu Garcés.** 2015-X-11.
- **Naybelis-Maria Gomez Rodriguez.** 2015-X-12.
- **Imin Bousbaa.** 2015-X-13.
- **Adrian Pescador Campaña.** 2015-X-13.
- **Mara Atxa Luis.** 2015-X-14.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**24an:** 19.45, 22.30
**25ean:** 20.00
**26an:** 20.30

### "La cumbre escarlata"

*Zuzendaria:* **Guillermo del Toro**




**(2 ARETOAN)**
**24an:** 17.00, 19.45, 22.30
**25ean:** 17.00, 20.00
**26an:** 20.30

### "Amama"

*Zuzendaria:* **Asier Altuna**




**(ANTZOKIAN)**
**24an:** 17.00 (1 areto), 19.45, 22.30
**25ean:** 17,00 (1 areto), 20.00
**26an:** 20.30 (1 areto)

### "Marte"

*Zuzendaria:* **Ridley Scott**




**(ANTZOKIAN)**
**24an:** 17.00
**25ean:** 17.00

### "Pan. Viaje a Nunca Jamás"

*Zuzendaria:* **Joe Wright**



## BARIXAKUA 23

### GAZTELEKUA
**16.30.** Karaokea. Indianokuan.

### HITZALDIA
**19.00.** Errepublikari buruzkoa, Adolfo Castañosen eskutik. Topalekuan.

### INAUGURAZIOA
**19.00.** *"Indalezio Ojanguren XXVIII. Argazki Lehiaketa"* eta *"Politiko-Poetiko 5"* erakusketen inaugurazioa. Portalean.

### BILERA
**19.00.** Sanandresak prestatzeko, Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta. Kultun.

## ZAPATUA 24

### ODOL-EMAILEEI OMENALDIA
**13.15.** Odol-emaileei harrera eta agurra.
**13.30.** Dominak eta diplomak banatzea.
**14.30.** Bazkaria. Unzaga Plaza hotelean.

### GAZTELEKUA
**17.00.** Sukaldaritza. Indianokuan.

### ZAPATUKO IPUINA
**18.00.** *"Barrenak astintzen"*, Vanessa Gonzalezen eskutik (3 urtetik gorakoentzat). Sarrera doan. Umeen liburutegian.

### LASTERKETA
**18.00.** III. Asier Cuevas Herri Lasterketa. 7'5 kilometroko ibilbidea, herri barruan. Irteera eta helmuga Kub Deportiboaren parean.

### KONTZERTUA
**23.30.** The Rockos (Eibar). Ez Dok tabernan.

## DOMEKA 25

### LEHIAKETA
**09.00.** XXXVIII. Aire Zabaleko Pintura Lehiaketa, Eibarko Artisten Elkarteak antolatuta. Izen-ematea Portalean (11:00ak arte).

### KALEJIRA
**11.00.** Usartza Txistulari Bandaren kalejira.

### GAZTELEKUA
**17.00.** Play/Wii. Indianokuan.

## ASTELEHENA 26

### MUSIKALDIA
**20.30.** Emmils Darzins Letoniako abesbatzaren emanaldia. Eibarko XXII. Musikaldia, 47. Tolosako Abesbatza Lehiaketa. 5 euro. Coliseoan.

## MARTITZENA 27

### IKASTEN
**10.00.** *"Zer dago sakeleko telefonoen atzean?"* hitzaldia, Kongoko koltan mineralaren inguruan, Virginia Basurtoren eskutik. Armeria Eskolan.

### IKASTEN
**16.00.** Punto tailerra.
**17.00.** Joskintza tailerra. Portalean.

### DASTAKETA
**19.00.** Basatxerri produktuen dastaketa. …eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 solairuartean).

### EKITALDI POLITIKOA
**19.00.** Alderdi sozialistaren ekitaldia, Espainiako hauteskundeen harira. Hizlariak: Pedro Sanchez (PSOE-ko idazkari nagusia eta Gobernurako hautagaia), Miguel de los Toyos (Eibarko alkatea) eta Idoia Mendia (Euskal Sozialisten idazkari nagusia). Coliseoan.

## EGUAZTENA 28

### IKASTEN
**11.00.** Tertulia-kafea: *"Errefuxiatuak"*. Untzagako jubilatu etxean.

### EMAKUMEEN AZTARNAK
**11.30.** *"Emakumeen aztarnak, Eibarko industrializazio-prozesuan"* (9. saioa). Untzagako jubilatuen etxean.

### EKINGUNE
**19.00.** *"Emozioen monologoak"* saioa Ekinguneren eskutik (22:00ak arte). Arrate Kultur Elkartean.

### EIBARKO KANTUZALEAK
**19.00.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

### HITZALDIA
**19.30.** *"Tratamiento del cáncer de próstata. Relación con incontinencia y disfunción erectil"*. Hizlariak: Gregorio Garmendia eta Jose Antonio Rodriguez sendagileak. Portalean.

### MUSIKALDIA
**20.30.** Stockholms Musikgymnasium (Suedia) abesbatzaren emanaldia. Eibarko XXII. Musikaldia, 47. Tolosako Abesbatza Lehiaketa. 5 euro. Coliseoan.

## EGUENA 29

### IKASTEN
**10.00.** Zineari buruzko hitzaldia. Hezkuntza Esparruan.

### KALEETAN KANTUZ
**19.30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## erakusketak

### ✔ Urriaren 25era arte
***"ERREPUBLIKAKO EMAKUMEEN OMENALDIA. EMAKUME OLERKARIEN MEMORIA HISTORIKOA BERRESKURATUZ"***. *Topalekuan.*

### ✔ Urriaren 31ra arte
***IÑAKI CAMPOSEN*** *argazki erakusketa. Ez Dok tabernan.*
***"RALLY DEPOR 2015"*** *argazki erakusketa. Portalea jatetxean.*
***JUAN ANTONIO PALACIOSEN*** *argazki erakusketa. El Ambigu tabernan.*
***"FRANK SINATRAREN MENDEURRENA (1915-2015)"*** *pintura erakusketa. Untzagako Zentro Sozialean.*

### ✔ Azaroaren 15era arte
***INDALEZIO OJANGUREN XXVIII.*** *argazki lehiaketan saritutako lanen eta beste hainbaten erakusketa. Portalean.*
***"POLITIKO-POETICO 5"*** *proiektuaren erakusketa. Portalean.*

## lehiaketak

### ✔ San Andres Bertso-paper lehiaketa
Informazioa eta lanak aurkeztea: **Azaroaren 2ra arte**, ...eta kitto! Euskara Elkartean (Urkizu, 11 - solairuartean).

### ✔ Eibar Beldur Barik 2015
Izen-ematea: Internet-en, beldurbarik.org helbidean. **Azaroaren 11ra arte**. Informazio gehiago: Berdintasun Arloa (Portalea, 4. pisua; 943708440; berdintasuna@eibar.eus) eta Andretxea (Zezendibe, 9 behea; 943700828; andretxea@gmail.com).

## diru-laguntzak / bekak

### ✔ Umeak Eskolara
Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Untzaga, 7). Informazioa: Pegoran eta Eibarko Udalean.

### ✔ Ikasleentzat
Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren bulegoan (Untzaga, 7). Informazioa: Pegoran eta Eibarko Udalean.

### ✔ Langileak kontratatzeko
Eskaerak: **Urriaren 30era arte**, Pegoran.

### ✔ Ekintzaileentzat
Eskaerak: **Azaroaren 9ra arte**, Debegesan (Vanesa Hortas, ekintzaile@debegesa.eus / 943820110).

## ikastaroak

### ✔ Jabetze Eskolako ikastaroak
**Noiz eta non:** Iraila eta abendua bitartean, Andretxean eta Portalean.
**Eskaintza:** *"Transfeminismoa"* (gazteleraz, 8 ordu, azaroaren 6ra arte).

## telefono jakingarriak

SOS deiak.......112
Pegora.......010
Udaletxea.......943 70 84 00
Portalea.......943 70 84 39
Udaltzaingoa.......943 20 15 25
Mankomunitatea.......943 70 07 99
Debegesa.......943 82 01 10
KIUB.......943 20 38 43
Epaitegia.......943 03 34 00
Iberdrola.......901 20 20 20
Naturgas.......902 12 34 56
DYA Larrialdiak.......943 46 46 22
Gurutze Gorria.......943 22 22 22
Mendaro osp.......943 03 28 00
Anbulatorioa.......943 03 25 00
Torrekua.......943 03 26 50
Errepideak.......902 11 20 88
Ertzaintza.......943 53 17 00
Eusko Tren.......902 54 32 10
Lurraldebus.......943 00 01 17
Pesa.......900 10 14 00
Taxiak.......943 20 30 71
.......943 20 13 25
Alkohol.Anon.......629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.......650 26 59 63






## SUDOKUA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | | | 9 | | | | 7 | 6 |
| | | | | | 3 | | 1 | |
| | 9 | 6 | | | | | 2 | 3 |
| | 7 | | 8 | 5 | | | | |
| 4 | | | | | | | | 5 |
| | | | | 1 | 9 | | 3 | |
| 7 | 8 | | | | | 3 | 9 | |
| | 2 | | 7 | | | | | |
| 6 | 1 | | | | 2 | | | 7 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 3 | 7 | 2 | 6 | 8 | 9 | 4 | 5 |
| 5 | 8 | 6 | 9 | 4 | 1 | 7 | 2 | 3 |
| 4 | 2 | 9 | 3 | 7 | 5 | 8 | 1 | 6 |
| 3 | 1 | 2 | 8 | 5 | 7 | 6 | 9 | 4 |
| 7 | 6 | 4 | 1 | 3 | 9 | 2 | 5 | 8 |
| 8 | 9 | 5 | 6 | 2 | 4 | 1 | 3 | 7 |
| 6 | 7 | 3 | 4 | 9 | 2 | 5 | 8 | 1 |
| 2 | 4 | 1 | 5 | 8 | 6 | 3 | 7 | 9 |
| 9 | 5 | 8 | 7 | 1 | 3 | 4 | 6 | 2 |

AURREKOEN EMAITZA

## farmaziak

### ✔ barixakua 23
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

### ✔ zapatua 24
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### ✔ domeka 25
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

### ✔ astelehena 26
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### ✔ martitzena 27
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)

### ✔ eguaztena 28
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

### ✔ eguena 29
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)

### ✔ barixakua 30
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

GAUEZ BETI
**Elorza (J. Gisasola, 18)**

# iragarki laburren tartea

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai San Vicente de la Sonsierran (Errioxa). 4 logela, egongela, sukaldea, bi komun eta ganbara. Tel. 615-759399.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan. 2 logelakoa. Hobe altzaririk gabe. Tel. 649-978832.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 652-032117.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Jostun-tailerra traspasatzen da jubilazioagatik. Tresna, bezero eta denda finkoekin. Tel. 645-341395.
– Garaje itxia salgai San Pion. Sarrera ona. Tel. 652-775746.
– Garaje bikoitza salgai Bittor Sarasketa kalean. Tel. 617-336462.
– Taberna traspasatzen da Eibar erdialdean. Martxan, bezero finkoekin. Tel. 695-711730.

### 3.2. Errentan

– Gazteentzako lokala alokagai Jardiñeta kalean. 132 $m^2$. Berriztua eta legeztatua. Tel. 656-756485.
– Garaje itxia alokagai Abontzan. Tel. 617-688311.
– Lokala alokagai Ubitxa inguruan, kale mailan (irteera zuzena kalera). Bulego edo biltegirako egokia. 70 $m^2$. Tel. 617-688311.
– Garaje-marra alokatzen dut Txomoko parking-ean. 90 euro hilean. isabel.berasategui.flegel@gmail.com
– Garaje itxia alokagai San Andres pasealekuan. Tel. 660-316903.
– Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da Eibarren. Prezio interesgarria. Tel. 679-425467.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Erreferentziekin. Tel. 680-973549.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 631-832767.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 622-225561.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 646-778839.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 634-748531.
– Mutila eskaintzen da baserriko lanak egiteko, lorezain jarduteko, elektrizista moduan eta zamalanak egiteko. Tel. 631-265121.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-051309.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-384325.
– Neska eskaintzen da soziedadeak, pegorak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauez ere). Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 618-828506.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Tel. 672-442318.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako (tabernak, ...). Tel. 631-157623.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Interna. Tel. 658-458271.
– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Geriatria ezagupena eta gida-baimenarekin. Tel. 626-168258.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-771519.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Informeak eta esperientzia. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak arratsaldez zaintzeko. Tel. 628-738472.
– Neska eskaintzen da nagusiak (baita gauez ere) edo umeak zaintzeko. Tel. 631-417995.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 688-820508.
– Txalapartaria eskaintzen da ezkontza, omenaldi, azoka etabarretan jotzeko. Tel. 688-611021 eta 943-833939.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 661-082294.
– Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko (baita gauez ospitalean ere) eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 652-587259.
– Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko (baita gauez ospitalean ere) eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-966192.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 639-423493.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 653-075865.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak (baita ospitalean ere) edo umeak zaintzeko. Erreferentziak. Tel. 636-815924.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-817384.
– Neska eskaintzen da pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita umeei eskolako lanekin laguntzeko ere. Tel. 622-225561.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 679-910991.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketak egiteko. Tel. 685-768026.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... Tel. 629-869572.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 672-337819.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-276360.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-564674.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Edozein ordutan. Erreferentziak. Tel. 631-975260.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-908730.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 655-231059.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 606-906729.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile jarduteko eta garbiketak egiteko. Tel. 617-084256.
– Gizonezkoa eskaintzen da gizon nagusiak zaintzeko. Baita etxeak, ganbarak etabar garbitzeko. Tel. 628-747805.
– Emakumea eskaintzen da etxeko garbiketak egiteko. Tel. 628-747805.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 602-076486.

### 4.2. Langile bila

– Pertsona behar da Ermuan 8 orduko garbiketa lanak egiteko. Tel. 685-701034.
– Artezte makinetan edoCNC zentroetan esperientzia duten ofizialak behar ditugu. Bidali curriculuma Eibarko 177 posta-kutxatilara.
– Fisioterapeuta eta kiromasajista behar da Eibarko ileapaindegi batean. Lan giro ona. Tel. 678-674250.
– Neska euskalduna behar da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 657-723075.
– Neska behar da Zuzenbide ezaupideekin noizbehinkako lana egiteko. Deitu goizez. Tel. 943-120949.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Neska eskaintzen da klase partikularrak emateko LH eta DBHko 1. eta 2. mailakoei. Esperientzia. Tel. 637-020260.
– Unibertsitateko neska eskaintzen da klase partikularrak emateko. Esperientzia ulermen arazoak dituzten umeekin. Banaka. Merke. Tel. 625-019711.
– Matematikak, Fisika, Kimika, Lengoaia, Kontabilitatea eta Ekonomia klaseak ematen ditut. DBH, Batxilergoa eta Heziketa zikloak. Tel. 685-739709 eta 943-127365.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak etabarreko klaseak ematen ditut. 1-3 ikasleko taldeak. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– 0'90eko sukaldea salgai, gas-bonbonak eramatekoa eta labearekin. Baita 0'90eko ohe artikulatua ere. Berriak. Egoera onean dauden 16 buzoi oparitzen dira. Tel. 617-688311.
– Umeendako aulkia salgai. Beltza, McLaren Techno-XT markakoa. Bere neurrirako plastikoarekin. 180 euro. Tel. 646-892162.
– Ontzi-garbigailua salgai. Balay markakoa. 100 euro. Tel. 636-906921.
– Bigarren eskuko umeendako Bugaboo-a salgai. 150 euro. Tel. 649-978832.

### 6.2. Eman

– Ordenagailurako aulkia oparituko nuke. Bizkarralde handia eta gurpilekin. Tel. 636-906921.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Ikusteko betaurrekoak euren fundan aurkitu nituen zapatu gauean Errebalgo parkinean. Tel. 687-472084.

# ORAIN**GIPUZKOA**

Egiteko ordua da, Gipuzkoa aktibatzeko ordua, geuri eta gainerakoei zertarako gai garen erakusteko ordua.

Betidanik egin izan dugu. Historian zehar gauza handiak egin izan ditugu sinetsi eta balu garenean. Berriz egiteko ordua da. Liderrak gara industrian, enpresa-eredu aitzindariak asmatu ditugu, I+G+Bn liderrak gara... gipuzkoarrak gara.

Aberastasunak sortzen badakigu, baina baita banatzen ere. Gure lurraz harro, baina Europara eta mundura zabalik. Tinkotasunean sinesten dugu, baina inoiz ez inposaketan. Esfortzua dugu lelo, baina baita elkartasuna ere. Estatu mailan liderrak gara ongizatean, ekonomian, gizarte justizian eta berdintasunean. Gipuzkoa gara. Eta ez dugu zarata handirik egiten. Apaltasunez, lan eginez, arduraz aritzea eta errespetuz jokatzen. Kexak eta aitzakiak alde batera utzi behar ditugu. Frustrazioa iraganean geratu da. Zurikeriak iragana dira. Geldirik egotea iraganeko kontua da. Ezin dugu jarraitu arazoei bueltaka. Hori guztia atzoko gauza da.

Orainari buruz hitz egiteko unea da. Etorkizuna orain da eta etorkizuna eraikitzeko erabakiak orain hartu behar ditugu. Gure lurra zaintzea orain da. Elkartasuna orain da. Lan egitea, laguntzea, elkarbizitzari ekitea, adostasuna orain dira.

Orain da Gipuzkoa.
Eta orain gaur da.




Entzumen-test integralak
Audifono digitalak
Neurrira egindako tapoiak
Konektibitate-soluzioak
Mantentze-tekniko integrala
Neurrira egindako finantziazioa

audiocentro
Igmar

Julian Etxeberría, 2
20600 Eibar
Tel. 943 20 26 99

Audioprotesis goi mailako
teknikaria: Antón Martinena